

**JULENE AZPEITIA LEHIAKETA 2011**  
Ipuinak, Olerkiak eta Bertsoak  
**ARAUAK**

1. Julene Azpeitia Lehiaketan hauexek izan daitezke partehartzaile:
  - a) Durangoko eskoletako gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrak, 18 urte artekoak.
  - b) 18 urtetik gorakoan, edonor.
2. Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak orrialde bakar batetik idatzita aurkeztu behar dira, eta ezaugarri tipografiko hauekin: Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat. Puntua: 11 edo 12. Lerroen arteko tarte: 1,5.
3. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da **"ipuina"**, **"olerkia"** edo **"bertsoa"** izenarekin eta egilearen datuak **"egilea"** izeneko beste fitxategi batean.
4. Epaimahaia Durangoko Udaleko Euskara Sailak izendaturiko zenbait adituk osatuko dute.
5. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak **apirilaren 15a** orduko bidali behar dira helbide honetara:

**JULENE AZPEITIA LEHIAKETA**  
**Durangoko Udala – Euskara Saila**  
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO  
[juleneazpeitia@durango-udala.net](mailto:juleneazpeitia@durango-udala.net)

6. Epaimahaiak **maiatzaren 31n** emango ditu ezagutzera irabazleen izenak. Gero, jendaurreko ekitaldi bidez banatuko dira sariak San Agustin kultur gunean.
7. Epaimahaiak akzesitak ematea erabaki dezake eta, halaber, sariren bat ez ematea ere. Bestalde, saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila berauek argitaratzeaz arduratuko da.
8. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

# LEHIAKETAREN SAILAK

## Ipuinak

## Olerkiak eta Bertsoak

### LHko 5. eta 6. maila

Luzera: 1 - 3 orrialde artekoa  
Saria: liburu sorta (100 €)

#### Olerkiak

Luzera: 10-20 lerro

Saria: liburu sorta (100 €)

#### Bertsoak

Luzera: 3 bertso

### DBHko 1. eta 2. maila

Luzera: 2 - 4 orrialde artekoa  
Saria: liburu sorta (100 €)

#### Olerkiak

Luzera: 20-30 lerro

Saria: liburu sorta (100 €)

#### Bertsoak

Luzera: 4 bertso

### DBHko 3. eta 4. maila

Luzera: 3 - 6 orrialde artekoa  
Saria: 150 €. Akzesita: 100 €

#### Olerkiak

Luzera: 30-40 lerro

Saria: 150 €. Akzesita: 100 €.

#### Bertsoak

Luzera: 5 bertso

### BATXILERGOA – LANBIDE HEZIKETA

Luzera: 4 - 7 orrialde artekoa  
Saria: 200 €. Akzesita: 120 €

#### Olerkiak

Luzera: 40-50 lerro

Saria: 200 €. Akzesita: 120 €

#### Bertsoak

Luzera: 6 bertso

### 18 urtetik gora

Luzera: 4 - 8 orrialde artekoa  
Saria: 600 €

#### Olerkiak

Luzera: 50-70 lerro

Saria: 300 €

#### Bertsoak

Luzera: 8 bertso

\*Oharra: olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.